

ERGATIBOA DEFINITZEN: LEHENENGO SAIOA GRAMATIKA SORTZAILEAN

Itziar Laka

Hizkuntzalaritza orokorra / Euskal Herriko Unibertsitatea

1. Atarian¹

Ohore handia da Rudolf de Rijk irakaslearen omenez argitaratutako liburu honetan parte hartzea. Urteetan zeharreko gidaritza, aholku emate eta laguntza eskertzeko aukera ematen digu, apalki bada ere. Askok gara, izan ere, de Rijk burututako lana argi modura erabili dugunok, euskal gramatikaren ikerkuntzan abiatzean. Ondorengoan lana errazagoa izan da, de Rijk bezalako aitzindariak jasandako neke eta urratutako bi-deari esker.

Esker onez idazten dudan honetan, de Rijk hizkuntzalariaren lan argitaratuetan agertu ohi ez den lantxo baten inguruan jardun nahi nuke, egileak berak egotzi izan diona baino garrantzi handiagorik baduela sinisten dudalako. Izan ere, lantxo hau, «Re-defining the Ergative» izenekoa, gramatika sortzailean ergatibotasunak jaso zuen lehenengo azalpen saioa da.² Honek dagoeneko garrantziz jantzen badu ere, bada azpimarratzeko besterik: lan horretan eskeintzen den azalbideak jarraipena ezagutuko zuen gerora, ergatibotasuna azaltzeko garatu diren hipotesi nagusi bietako baten muina itxuratzeko baitu. Areago, erakutsi nahi nukeenez, de Rijk gazteak lan honetan egiten duen proposamenak, Teoria Estandarra zeritzon ereduaren hutsune edo akats nagusi bat argitaratu azaltzen digu, geroko Hatsarre eta Parametroen ereduak, θ -teoria eta Kasu-teoriaren elkarlanaren bitartez beteko zuen hutsunea.³

Askorentzat jakina den legez, ergatibotasuna munduko hizkuntza gutxi batzuetan agertzen den gertakari gramatikala da, giza hizkuntzaren egitura orokorrari buruzko arazo garrantzitsuak plazaratzen dituena, batik bat funtzio gramatikalen alorrean, eta

¹ Lan hau, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza eta Ikerkuntza eta Unibertsitate Sailaren PI-1999-18 eta Euskal Herriko Unibertsitateko 9/UPV 00027.130-13587/2001 ikerkuntza laguntzei zor zaie.

² Lana, ikasle denboran burutu zuen de Rijk MIT ikastetxean, eta hizkuntzalarien artean zabaldu bazen ere, garaiko aipamenez erakusten duten bezala, ez zen argitaratu. Nik dakidala, ez dago saio goiztiaragorik gramatika sortzailean. Haatik, egun ez ohi da askotan aipatu; adibidez, Johnsek (1996): "The earliest discussions of ergativity in generative grammar are those of Hale 1970, Anderson 1976 and Chung 1977." Egungo gramatikalarik sortzailean artean ezezaguna izanagatik, eredu sortzailetik kanpoko monografetan aipatzen da, esaterako Dixon 1994.

³ Eredu hau, Chomsky 1981 lanean aurkezten da. Euskaraz idatziriko aurkezpen bikain baterako, ikus bedi Artiagoitia 2000.

bereziki *subjektu* eta *objektu* adigaien unibertsaltasunari dagokienean. Haatik, gramatika sortzailearen hastapenetan, 1960-1980 tartean, ergatibotasuna ez da ia aipatu ere egiten. Salbuespenak gutxi dira, eta esanahitsuak. Salbuespen gutxi horietarik gehienak, izan ere, euskarari buruzko lanak ditugu. Teoria Estandarrak eskaintzen zuen eredu teorikoko lanabes nagusiak erabiliaz saiatzen dira ergatibotasuna azaltzen: berridazketa erregelak edo erregela transformazionalak erabiliaz, alegia.

Lan aitzindari hauek eskaintzen dituzten azalbideek, geroko ikerketa ezagunagoek jarraituko dituzten bide nagusi bi urratzen dizkigute: Lehenengo hipotesian, ergatibotasuna *sakoneko* gertakaria da, egitura sintaktikoaren hasierako mailan kokatzen baita, hiztegia eta sintaxia lotzen diren jatorrizko unean. Bigarren hipotesian, ergatibotasuna *azaleko* gertakaria litzateke, sintaxiaren azkeneko mailetan ematen dena, morfologiarekiko lotura egitean. Lehenengo hipotesian, hizkuntza ergatibo eta nominatiboek perpaus egitura ezberdinak sortuko litzukete hasiera-hasieratik; Bigarren hipotesiaren arabera, ordea, sakoneko egitura sintaktikoak unibertsalak lirateke, eta eratorketaren ibilian bereziko lirateke gramatika ergatiboak eta gramatika nominatiboak. Gerora, ergatibotasuna azaltzeko kontzepzio nagusi bi hauek, ergatibotasun mota bi itxuratuko dituzte: lehenak, *ergatibotasun sintaktikoa*, eta bigarrenak *ergatibotasun morfologikoa* (Anderson 1976, Levin 1983, Marantz 1984).

Hasiera batetik, hots, XX. mendearen erdialdetik aurrera, gramatika sortzaileak helburu nagusitzat izan du giza gramatiken eredu ahalik eta argiena eratzea. Izan ere, *sortzaile* hitzak horixe adierazi asmo du: guztiz azaldua, ahal delarik gramatikaren eragiketa edota ekairik ezkutuan uzten ez duena. Gramatika sortzaileak, bada, hizkuntzaren ezaugarri unibertsalak ezagutu nahi ditu, eta aldi berean, hizkuntzen arteko aldagarritasuna azaldu. Gizakion hizkuntzaren oinarri nagusiak edo gramatika unibertsala zer den inoiz jakingo badugu, ulertu beharko dugu zeintzuk diren hizkuntzen arteko aldeen nondik-norakoak. Lehenengo helburuaren erdiesteak, eskutik lotuta dakar bigarrenaren erantzuna: giza hizkuntza arrakastaz aztertzeke, giza elkarte ezberdinetatik aurkezten dizkigun leiho eta leihatila denetatik begiratu behar diogu. Hedatuago diren hizkuntza taldeak bakarrik aztertuz gero, gure ikusmira murrizten da eta, ezagutzaren sakontasuna motelitzen. Horregatik, giza hizkuntza orokorrean eta sakonki ulertzeko helburua daukalako, gramatika sortzaileak etengabe zabaldu du bere ikusmira geroz eta hizkuntza gehiago bilduz, eta honek saihetsezinki, hastapenetan jorratu gabeak ziren gertakariak ekarri ditu eztabaidaren plazara. Rudolf de Rijk maisuaren ikerbidea, egitasmo honen lekuko sendoa dugu.

Ergatibotasuna getakari txikia da, bai ergatiboak diren giza hizkuntzen kopuruaren aldetik, eta baita sortu duen ikerkuntza kopuruaren aldetik ere, eredu sortzailean eta hizkuntzalaritzan oro har. Haatik, ergatibotasunak galdera guztiz garrantzitsuak sortzen ditu, giza hizkuntzaren eredu orokor bat eraiki nahi duen edozeinentzat: Unibertsalak al dira perpausaren *subjektua* eta *objektua* bezalako adigaiak? Zer da *iragankortasuna*, aditzak sailkatzeko erabiltzen dugun irizpide nagusia? Lehenengo galderak arreta handia jaso du ergatibotasunaren lehenengo azalbideetan; bigarrenaren garrantzia geroz eta nabarmenagoa egiten da hurrengo urteetan, hizkuntza ergatiboaren arteko erkaketari ekiten zaionean.

Ekin diezaiogun, bada, lehenengo galdera horri: unibertsala al da *perpausaren subjektua* adigaiak? Hizkuntza nominatiboetan (hots, ergatiboak ez diren hizkuntzetan) subjektuak eta objektuak bereizteko erabiltzen diren irizpideek ez dute zuzenean balio hiz-

kuntza ergatiboetarako. Ergatibotasunak, bada, zalantzan jartzen ditu gramatikaren oinarrikitzat jo ohi diren adigaiak, mendebaldean bederen, gramatika deskribapenaren ekaitzat erabili izan direnak duela bi mila urte, inplizituki edo esplizituki giza hizkuntzaren ezaugarri unibertsaltzat hartu izan direnak.

2. Ergatibotasuna zer den

Gertakari honek jasotzen duen izena, eredu sortzailea baino zaharragoa da, zaharregia ez bada ere. Ergatibotasuna, 1912.urtean sartu zen gramatikaren terminologian, Dirr hizkuntzalari errusiarraren eskutik. Ergatibotasuna XX. mendean aurkitzen da, bada, nahiz eta ergatiboak ziren hizkuntzak askoz lehenagokoak diren, eta aurkitzen den unetik bertatik, arruntagoa den eredu nominatiboari kontrajartzen zaio.⁴ Horregatik, ergatibotasunaren itxurapena beti egin ohi da nominatibotasunaren araberan: *ergatibotasunak, perpaus iragankorretako objektuak eta perpaus iragangaitzetako subjektuak talde batean biltzen ditu, kanpoan utzita perpaus iragankorreko subjektuak.*

Ergatibotasuna, kasu morfologian edota aditz komunztaduran azaldu ohi da. Hizkuntza ergatiboak gutxiengoa dira munduko hizkuntzetan, baina kontinente guztietan aurkitzen ditugu, eta ez dute talde genetiko bat osatzen. Hots, hizkuntza ergatiboek ez dute nahitatez harreman historikorik euren artean, ez dute jatorri bera, eta ez dute nahitaez elkarrekin kontakturik izan.

Gaztelania eta ingelesa hizkuntza nominatiboak ditugunez, bertako datuak erabil ditzakegu ergatibotasuna datuetan aurkezteko. Har ditzagun perpaus iragankor soil bi adibide:

- (1) a. las mujeres han visto a los hombres b. the women have seen the men

Perpaus hauetan, *subjektu* deritzogu aditzarekiko komunztadura duen osagaiari (*las mujeres, the women*), eta *objektu* komunztadurarik agertzen ez duenari (*los hombres, the men*). Komunztadurak, bada, osagai talde bi bereizten ditu: *subjektuak* eta *objektuak*. Izenordainen morfologiari begiratzen badiogu, bai gaztelaniak eta baita ingelesak ere, forma ezberdinak hautatzen dituzte subjektu lana egiten duten izenordainetarako eta objektu lana egiten dutenetarako, (2)-ko adibideek erakusten diguten legez:

- (2) a. ellas los han visto b. they have seen them

Ikusten dugunez, badira gaztelaniaz eta ingelesez aditzaren argumentu mota bi: subjektuak eta objektuak. Argumentu talde bakoitzak ezaugarri formal batzuk azaltzen ditu: (a) *Subjektuen* kasuan, aditzarekiko komunztadura eta izenordain nominatiboak. (b) *Objektuen* kasuan, aditzarekiko komunztadura eza eta izenordain akusatiboak.⁵ Bi talde hauetarik zeinetan kokatzen da aditz iragangaitz baten argumentu bakarra? *Subjektuen* taldean, gorago, (1) eta (2) adibideetan erabilitako irizpide morfologikoez erakusten dugutenez. Honela, (3) perpausak hartzen baditugu:

⁴ Sarasola 1977 lanaren lehenengo zatian, ergatibotasunak euskalaritzan jasotako zenbait (sasi)deskribapen bildu eta eztabaidatzen ditu.

⁵ Badira hizkuntza bi hauetan, subjektua eta objektua bereizten dituzten hitz ordenari eta sintaxiari loturiko beste irizpide batzuk, oraingo eztabaidara ekarriko ez ditugunak.

- (3) a. las mujeres han llegado c. ellas han llegado
 b. the women have arrived d. they have arrived

Errazki ikus genezake, (3a) eta (3b) adibideetako aditzaren argumentu bakar horrek, *las mujeres* edo *the women*, aditzarekiko komunztadura egiten duela, eta izenordain baten ordezkatzen badu, nominatibozkoa hautatzen dela (3c,d). Hona, bada, nominatibotasuna zertan den; aditzaren argumentu nagusiak talde bitan banatzen dira: (a) *subjektuen taldean*, aditz iragankorren egilea (edo egilearen antz handiena duena) eta aditz iragangaitzen argumentu bakarra sartzen dira; (b) *objektuen taldean*, aditz iragankorren gaia (edo gaitik hurbilen den argumentua) sartzen da, ez besterik.

Euskarak, baina, bete modu batera antolatzen ditu argumentu talde nagusi biak. Har dezagun (4) adibidea:

- (4) a. emakumeek gizonak ikusi dituzte b. zuek gu ikusi gaituzue

Perpau iragankorrek (4a,b), euskaraz ere, argumentu talde bi bereizten dituzte: batetik, egilea (edo egilearen antza gehien duen argumentua) kasu marka batez jantzirik agertzen zaigu, *ergatiboa* edo NORK deitzen dugun kasu markaz alegia. Bestetik, gaia (edo gaiaren antza gehien duen argumentua), kasu marka ageririk gabe azaltzen da, eta honi *absolutiboa* edo NOR kasua deritzogu. Aditz komunztadurak, bere aldetik, bereizkuntza hau islatzen du: *ergatibodun* argumentuak komunztadura mota bat egiten du laguntzailearekin, *ergatibo* edo NORK komunztadura alegia, eta *absolutibodun* argumentuak beste komunztadura mota bat egiten du, hain zuzen ere *absolutibo* komunztadura edo NOR sailekoa. Honaino, kontuak ez dira gaztelania eta ingelesarenetatik aldentzen: perpau iragankorretan argumentuak talde bitan banatzen dira: batetik egilea edo egilearen antzekoa, eta bestetik gaia edo gaiaren antzekoa. Baina, perpau iragangaitzetan, euskarak ez du hizkuntza nominatiboen eredu jarraitzen:

- (5) a. emakumeak etorri dira c. *emakumeek etorri dute
 b. gu etorri gara d. *guk etorri dugu

Perpau iragangaitzetan, aditzaren argumentu bakarrak ez du NORK morfologia hartzen, NOR morfologia baizik. Euskarak gaztelania edo ingelesaren bidea jarraituko balu, espero genukeena (5c) edo (5d) bezalako zerbait litzateke, hots, perpau iragankorretan egilearentzat hautatzen den morfologia bera, eta ez gaiarentzat hautatzen den morfologia absolutiboa. Hona bada, *ergatibotasuna* zertan den. Aditzaren argumentu nagusiak talde bitan banatzen dira, baina banaketa hori zertxobait ezberdina da: perpau iragangaitzetako argumentu bakarrak, perpau iragankorretako «objektuaren» itxura bera hartzen du.

3. *Subjektua eta objektua gramatika sortzailearen hastapenetan*

Gramatika sortzailearen hastapena urte batean kokatzekotan, 1957.ean kokatu ohi da, orduan kaleratu baitzen Noam Chomskyren *Syntactic Structures* liburua. Jakina denez, liburu honen hazia, hizkuntza egiturari buruzko irakastaldi batzuk dira, Chomskyk berak MIT ikastetxean emandakoak. *Egitura Sintaktikoak* lanean, Chomskyk gramatika sortzaileak eraikitzeke beharra defenditzen du, hau da, guztiz esplizitoak diren gramatika ereduak (ikus bedi Botha 1989: 1-8 kontu hau argitzeko). Bertan proposatzen den

eredu sortzaileak, erregela mota bi dauzka: osagai egitura erregelak batetik, eta erregela transformatzaileak bestetik. Gramatika eredu honen helburua, hizkuntza jakinetako gramatikak egitea da, batetik, eta bestetik, hizkuntzaren eredu orokor bat eratzea. Hurrengo lan batean, *Aspects of the Theory of Syntax* izenburua duen 1965.eko lanean, *Teoria Estandarra* deritzon eredu osatua aurkezten da, *Egitura Sintaktikoetan* defendaturikoaren garapena dena.

Teoria Estandarrean, *subjektua* eta *objektua* bezalako funtzio gramatikalak ez dira gramatikaren primitiboak edo ekaiak. Chomskyk argudiatzen duenez, funtzio gramatikal hauek, osagaiak perpausaren egituraren betetzen dituzten kokaguneen deiturak dira. Honela, funtsezko bereizkuntza dago kategoriatan eta funtzioen artean. Kategoriatan berezkoa zaio hiztegi ale bati; hau da, lexikoko aleak kategoriatan batekoak edo bestekoak izan behar dute, eta lexikoan bertan adierazten da elementu bat zein kategoriakoa den. Adibidez, *katu* elementua Izen kategoriakoa da berez; ezaugarri hau ezin daiteke aldatu sintaxi egituraren arabera. *Katu* I(zen) kategoriakoa da beti, eta hori honela itxura genezake formalki: [_I *katu*]. Era berean, elementu hori kategoriatan batekoa ala bestekoa izateak erabakitzen du elementu horrek sor dezakeen sintagmaren izaera; esaterako, *katu* elementua gune duen osagaia I(zen)S(intagma) izango da nahitaez.⁶ Kategoriatan, *berezkoa* zaio lexikoko elementuari.

Har ditzagun orain gramatika funtzioak, esaterako subjektua eta objektua. Lexikoko aleak ez dira berez subjektu edo objektu. Osagaiak perpausaren agertzen dituzten harremanen arabera eratzen dira gramatika funtzio hauek. IS batek, adibidez *katu beltza* osagaiak, funtzio ezberdinak bete ditzake, (6a) eta (6b) adibideetan ikusten dugun legez:

- (6) a. [_{IS} *katu beltza*]k ekarri du sagu hila atarira
 b. [_{IS} *katu beltza*] ikusi dut atarian

Funtzio gramatikalak ez dagozkio betetzen dituzten elementuen ezaugarri lexikoei: funtzio gramatikalak elementuen arteko harremanetatik sortzen dira. Delako IS bat, predikatu baten subjektua izan daiteke ala ez, egitura sintaktikoan betetzen duen lekua-
 ren arabera:

The notion «Subject», as distinct from the notion «NP», designates a grammatical function rather than a grammatical category. It is, in other words, an inherently relational notion.(...) Functional notions like «Subject», «Predicate» are to be sharply distinguished from categorial notions such as «Noun Phrase», «Verb», a distinction that is not to be obscured by the occasional use of the same term for notions of both kinds (Chomsky 1965: 68).


Izan ere, subjektu/objektu bezalako adigaiak, perpaus-egituraren arabera dira. Teoria Estandarreko osagai egitura erregelak, berridazketa erregelak ditugu: IS edo AS bezalako kategoriatan sinboloak aurkezten dituzte ezkerrean, eta baliokideak diren eskuinaldeko sinboloak kate batez ordezkatzen dituzte:

⁶ Dakigunez, hemen IS bezala aipatzen dituzten Determinatzaile Sintagmak (DS) dira. Dena den, gramatika sortzailearen hastapenetan mugituko garenez, orduko osagai banaketari atxikiko naitzaio, anakronismo larrietan ez erortzeko. Egun sintaxi teorian hedatuta dago Determinatzaile kategoriatan sintaktikoek Determinatzaile Sintagmak islatzen dituztelako tesia. Ikus bedi Artiagoitia 1998 honen aurkezpen eta defentsa argi baterako.

(7) $P \rightarrow IS AS$

Funtzio gramatikala, hots, delako sintagma batek predikatu batekin duen harremana perpaus-egitura jakin batean, berridazketa erregelen bitartez defini daiteke. (7) erregelak, hasierako P (perpaus) sinboloa aurkezten du, eta sinbolo-kate baliokide batez ordezkatzen du: IS eta AS sinboloek osatutako katea, hurrenkera horretan. Erregelak adierazten digu P sinboloa eta IS+AS sinbolo katea baliokideak direla.

Chomskyk (1965) egiten duen proposamenean, erregela hauxe berau da *subjektu* funtzioaren definizioa. Honela, «zer da subjektua?» galderaren erantzuna, (7) erregela da: *subjektua*, eratorpen sintaktiko baten lehenengo erregelak sortzen duen IS da. Erregela honek biltzen duen informazioa, zuhaitz diagrama baten bitartez adieraz daiteke, (8) adibidean bezala:




subjektu funtzioa, diagrama honen arabera ere defini dezakegu: *perpausaren subjektua*, *P adabegiak zuzenean menperatzen duen sintagma da* (harreman hau [IS, P] notazioa erabiliz adieraz daiteke formalki), edo beste modu batera esanda, *subjektua P adabegiaren alaba da*, *AS adabegiaren ahizpa*.⁷ Honela, bada, Teoria Estandarrean, funtzio gramatikalak ez dira eratorri ezineko ekaiak, baizik eta sintaxi konfiguraketa jakin batzuen deiturak. Chomskyk (1965) ondoko definizioak eskaintzen ditu funtzio gramatikal nagusietarako:

(9) Funtzio gramatikal nagusien definizioak:


(I) Subjektua	[IS, P]
(II) Predikatua:	[AS, P]
(III) Objektua:	[IS, AS]
(IV) Aditz nagusia:	[A, AS]

Aspects liburuan aurkitzen ditugun definizio hauek ez dira ingeleserako bakarrik proposatzen; aitzitik, definizio unibertsaltzat aurkezten dira. Chomskyren hitzetan: «These definitions must be thought of as belonging to general linguistic theory; in other words, they form part of the general procedure for assigning a full structural description to a sentence, given a grammar» (Chomsky 1965: 71-72). Honela, bada, unibertsalki itxura daitekeen subjektu talde bat badela onartzen dugu hipotesizat. Gaztelania edo ingelesa bezalako hizkuntza nominatiboetan, subjektuak P adabegiaren alaba diren ISak ditugu, eta kokagune hau bat dator subjektuen portaera bateratuarekin: bertan kokatzen diren ISeK egiten dute komuntadura aditzarekin, eta hortxe agertzen dira nominatibozko izenordainak kokaturik, lehen erabili ditugun ezaugarriak aipatzearren.

⁷ Zuhaitzeko adabegien arteko harremanak, emeen arteko senidetasun deiturez aipatu izan dira beti, zuhaitz diagramak existitzen direnetik.



Beraz, gramatika funtzioak berridazketa erregelen arabera definitzen dira unibertsal-ki, (11) ereduaren arabera:



Subjektu: ASren ahizpa den IS

Objektu: Aren ahizpa den IS

Haatik, gorago ikusi dugunez, subjektuen itxurapen hau egokia da hizkuntza nomi-natiboetarako, baina ez hizkuntza ergatiboetarako, ez baitago bateratasun formalik, ez komunztadura eta ez kasuaren aldetik ere, (10a) adibidearen kidea den perpaus iragan-korren IS ergatiboduna eta (10b) adibidearen kidea den perpaus iragangaitzeko IS ab-solutibodunaren artean.

4. Ergatibotasuna eta Teoria Estandarra: aitzindariak

Euskara gramatika sortzailearen arabera jorratzeko lehenengo saioek, eta neurri handi batean egungoek ere, arazo nagusi honekin topo egiten dute berehala: lehenengo berridazketa erregela ez dator bat hizkuntzaren gertakari morfologikoekin. Lan batzue-tan, arazoa aurkeztu eta alde batera uztea erabakitzen da, besterik ezean, gainerako gra-matikaren atalak itxuratzeari ekinaz. Hauxe da, adibidez, Goenagak (1978) aukeratzen duen bidea: osagai egitura erregelen egokitasuna ontzat ematen du, baina onarpen ho-nek dakartzan arazo enpiriko larri samarrak azpimarratuaz:

Lehenbiziko erregela hau eztabaidagarria da eta, hain zuzen eztabaidatua izan da.(...) Bestalde, erregela horrekin perpausak bi osagai nagusi dituela ematen da adi-tzera. Gramatika sortzaile «ortodoxoak» horrelako erregela bat proposatzen du, baina, berez, beste proposamen batzu ere zilegi lirateke, batez ere kontuan izanik euskaraz su-jeto delako hori forma desberdinez agertzen zaigula: *nor* sintagma gisa eta *nork* sin-tagma gisa, eta bestalde, *nor* sintagma delakoa batean sujetoa dela eta bestean objetoa (Goenaga 1978: 44).

Goazen, bada, ondoren, euskararen gramatika egituran funtsezkoa den ezaugarri honek gramatika sortzailearen teoria estandarraren barruan sortzen zuen arazoa azaltzen eta konpontzen saiatu ziren lehenengo lanak aztertzeraz, horien artean lehena de Rijk (1966) dugularik.

Gramatika sortzailean ergatibotasunari buruz egin ziren lehenengo lanak, Teoria Estandarraren eremuan egin ziren. Lan hauek erantzun nahi duten galdera nagusia: hizkuntza ergatiboek erabiltzen duten subjektu/objektu adigaia zein ote den. Honekin batera, nahiz askotan agerian azaltzen ez den, subjektu/objektu adigai hauen definizioak unibertsalak ote diren, Chomsky (1965) proposatu legez. Azpimarragarria da, batez ere euskal gramatikagintzaz ari garelarik, ergatibotasunari buruzko ikerkuntza aitzindari hauek, 60-70 hamarkadan eginak, euskarari buruzko lanak direla gehien bat.⁸

Hasierako lan hauetan dagoeneko, ergatibotasunari buruzko hipotesi nagusi bi aurkitzen ditugu:

- (a) De Rijk (1966) eta gero Wilbur (1970) defendatzen duten hipotesian, ergatibotasuna gertakari sakona da, bere sustraiak sintaxiaren sorburuan dituena, argumentu eta predikatuen arteko harremanak egitura sintaktikoetan eratzen diren unetik bertatik sistema nominatibotik bereizten dena. Hau da, hipotesi honetan, oinarriko berridazketa erregeletan bertan egiten du gramatikak aukera ergatiboa edo nominatiboa.
- (b) Bigarren hipotesiak, Sarasolak (1977) defendatuko duena, azaleko gertakaritzat dauka ergatibotasuna, eta aukera hau erregela transformatzaileetan azaltzen dela proposatzen du. Hots, berridazketa erregelak unibertsalak lirakeke, baina ergatibo marka erregela transformatzaile bati zor zaio, eta erregela horren ondorio litzateke hizkuntza ergatiboek agertzen duten morfologia berezia.

4.1. Ergatibotasuna sakoneko gertakari gisa hartua

Esan dugunez, hipotesi hau, de Rijk 1966 lanean lehenik eta gero Wilbur 1970 lanean proposatzen da. Hizkuntzalari bi hauek, bakoitza bere aldetik dirudienez, antzeko diren ondorio eta proposamenetara iristen dira. Bereziki, lan bi hauetan argudiatzen da ergatibotasuna hasierako berridazketa erregeletan egiten den aukera bati zor zaiola. Egile biek azpimarratzen dute, euskarazko datuek ez dutela sostengatzen Teoria Estandarrak aurkezten dizkigun berridazketa erregela eta gramatika funtzioen definizioa:


We immediately run into the problem of «subject of» and «object of» a Basque sentence. It is a sore point. We must emphasize that the choice of «subject of» the sentence, turns out to be a matter not so much of intuition, but of how we can translate that sentence into another language, usually a Romance or Germanic language. This choice would then have little or nothing to do with the internal structure of the Basque language (Wilbur 1970: 59).

⁸ Euskaraz kanpo, eredu sortzailean agertu ziren sistema ergatiboetako buruzko lehenengo eztabaidak, de Rijk irakasle izan zen Ken Hale hizkuntzalari bikainaren lanak ditugu, Australiako warlpiri hizkuntzari buruzkoak. Ikus bitez batez ere Hale 1970, 1973.


Bai Wilburrek eta bai de Rijkkek egiten duten hausnarketa hau guztiz egokia da, eta gehiegitan saihestu izan da euskal gramatikagintzan, eztabaida gabe zoritxarrez. Subjektuen taldea itxuratzeko irizpideek, aztertzen ari garen gramatikan oinarritutakoak izan behar dute, egokiak izango badira, eta ez inguruko hizkuntza nominatiboek egiten duten aukeran islatua itzulpenaren bitartez.

De Rijkkek (1966) egiten duen proposamena, bada, ondoko hau dugu: perpausa erazten duten lehenengo berridazketa erregeletan, euskarak ingelesak ez bezalako aukera bat egiten du, eta aukera horren ondorioz sortzen den sintaxi-konfiguraketa (12b) da; hona, ergatibotasunaren berdefinizioa:

(12) a. Hizkuntza nominatiboa:
ingeleza, gaztelania



b. Hizkuntza ergatiboa:
euskara



Proposamen honetan, bada, euskararen subjektuak, absolutiboa hartzen duten ISak dira (NOR saileko izen sintagmak, bestela esanda), eta euskararen objektuak ergatiboa hartzen duten ISak dira (NORK saileko izen sintagmak, beraz). Hizkuntza nominatiboek (12a) eta ergatiboek (12b), bestalde, badituzte antzekotasun nagusiak: kasu marka agerikorik azaltzen ez duten ISek osatzen dutē subjektuen taldea, eta kasu marka agerikoa dutenak objektuak dira.⁹ Bestalde, Teoria Estandarrean eskaintzen ziren funtzio gramatikalen definizioak gordetzen dira: subjektua P adabegiaren alaba da, eta objektua AS adabegiaren alaba, hizkuntza mota bietan.

Alabaina, bada funtsezko alderik eredu nominatibo eta eredu ergatiboaren artean: perpaus iragankor batean, esanahiaren aldetik kide diren osagaiek kontrako funtzio gramatikalak betetzen dituzte: gaztelaniaz edo ingelesez subjektu den ISa objektua litzateke euskaraz, eta alderantziz:

- (13) a. [_P [las mujeres] [_{AS}vieron [al hombre]]]
 b. [_P [the women] [_{AS}saw [the man]]]
 b. [_P[gizona] [_{AS}ikusi dute [emakumeek]]]

De Rijken lanak ez du inoiz kidetzen euskararako proposamena hizkuntza nominatiboetako perpaus pasiboekin. Honi dagokionez, bada, perpaus egitura erregeletan oinarritutako hipotesi honetan ez da esaten euskal perpaus iragankorra gaztelaniazko per-

⁹ Hizkuntza nominatiboetan arrunta da nominatiboak ageriko markarik ez izatea eta akusatiboak bai, latinez gertatzen den bezala. Hizkuntza ergatiboetan, ordea, ergatiboak ageri ohi du kasu marka, eta absolutiboak ez (Dixon 1994).

paus pasiboaren kidea denik. De Rijken proposamenak ez du transformaketa pasiborik aurkezten, beste proposamen batzuetan emango dena: «These works [Hale 1970, Chung 1977] deal with a perennial issue within ergativity the relation of the transitive clause in an ergative/absolute system... to the passive» (Johns 1996: 3). Gramatika sortzailean egin ziren lehen saioen artetik, izan ere, honek bakarrik saihesten du pasiboarekiko elkarkidetzaz; de Rijken (1966) proposamena, izan ere, Marantz (1984) laneko ergatibotasunaren hipotesiaren arbaso zuzena dugu, kontzeptualki bederen, eta ez du loturarik hipotesi pasibistarekin.¹⁰

Azpimarragarria begitantzen zait de Rijk 1966 laneko hipotesiak bere formulaketan aurkitzen duen oztupo gaindiezin bat, zeinak Teoria Estandarraren akats oinarritzko bat argitara ekartzen duen: Teoria Estandarrak ez zuen inola ere azaltzen sintaxi konfiguraketa eta harreman semantikoen arteko harremana zein zen. Bestela esan, Teoria Estandarrean ez zen adierazten zergatik hizkuntza nominatiboetan egileak hartzen duen [IS, P] kokagunea eta gaiak [IS,AS] kokagunea. Hau azaltzen ez zelarik, ezinezkoa zen de Rijkke proposatzen zuen bigarren aukera guztiz formulatzea. Ondorioz, gramatika sortzailearen helburu nagusi batean porrot egiten zuen ereduak, ez baitzuen agerian azaltzen giza hizkuntzan guztiz garrantzizkoa den atal bat; harreman tematikoek aukeratzen duten kokapena egitura sintaktikoan.

Egitura Sintaktikoak eta *Aspects* lanen arteko garapenik garrantzitsuena, lexikoan azaltzen den edukiaren aberastea da, hala nola lexikoko informazio horrek osagai egitura erregeletan duen eragina. Haatik, Teoria Estandarrean ezerk ez du ziurtatzen P adabegiaren alaba den ISa (13a,b) *ver* edo *see* «ikusi» aditzaren egile bezala interpretatuko denik, eta ezin dela ekintzaren gaitzat hartu. Era berean, eredu teoriko honetako ezerk ez du ziurtatzen (13c) adibideko P adabegiaren alaba den ISa *ikusi* aditzaren gaia bezala ulertu behar denik. Bestela esan, de Rijken proposamen hau, egiazki, formalizaezina da Teoria Estandarrean, eta aldi berean, proposamen honen adieraezintasunak, gramatika eredu honen oinarriko huts bat ekartzen du azalera: sintaxia eta harreman tematikoen arteko lotura adierazten ez duela, izan ere. Arazo hau, funtsezkoa izaki, oharkabean igarotzen da garaiko eztabaidetan oro har, nahiz eta azken hamarkada biotan ikerkuntza gai nagusi bilakatu den, konplexutasun handikoa.


4.2. Ergatibotasuna azaleko gertakari

Osagai erregeletan oinarritutako proposamen honek aurkitzen zituen oztupo kontzeptualak oharkabean gelditu baziren ere, ez zen gauza bera gertatu bere egokitasun enpirikoari dagokionean. Sarasola (1977) lanean, eta batik bat Wilburren proposamena kritikatuaz, beste proposamen bat egiten zaigu. Lehenik, osagai egitura erregeletan oinarritutako proposamena enpirikoki desegokia dela argudiatuko du, eta ondoren erregela transformatzaile bat erabiliko du ergatibotasuna azaltzeko.

Sarasolaren lanak egiten duen galdera nagusia da ea kasu morfologia eta komunztaduraz gaindi ebidentziarik ote den defendatzeko ergatibodun ISak euskaraz gaztelaniazko objektuek betetzen duten kokagune bera betetzen dutela. Hau da, (13) adibideko ASei so egiten badiegu, orain (14)ean errepikatuak, zer ebidentzia


¹⁰ Euskal gramatikagintzan pasibismoak izan duen ibilbidearen berri izateko, ikus bedi Sarasola 1977.

dugu euskaraz *emakumeek* gaztelaniazko *al hombre* osagaiaren kokagune bera betezen duela?



Sarasolaren iritzian, ez dago hori sostengatzen duen ebidentziarik. Gaztelaniaz hainbat gertakaritan erakuts daiteke objektua eta aditza hurbil daudela egituran, eta subjektua kanpoan uzten duen osagaia osatzen dutela. Gertakari horien euskal kideek, ordea, ez dute ergatibodun ISa eta aditza biltzen. Objektua eta aditzaren arteko hurbiltasun hau frogatzen duten gertakariak asko dira, eta Sarasolak aukeratzen dituenak, Izen + *egin* predikatuak eta nominalizazioak ditugu. Gertakari hauek, euskaraz, ez dute IS ergatiboduna eta aditza biltzen, baizik eta IS absolutiboa eta aditza.


Izen + *egin* predikatuak garrantzi handia izan dute eta daukate oraindik, euskararen kasu sistemaren ikerkuntzan.¹¹ Sarasola da, guk dakigunez, predikatu hauen garrantzia eztabaidara ekartzen duen lehenengo hizkuntzalaria. Predikatu hauetan, NOR edo absolutiboa duen IS gehi aditza agertzen zaizkigu bilduta, eta ez NORK edo ergatiboa duen IS eta aditza. Hau azaltzeko, onartu behar dugu IS + *egin* talde horrek osagai bat osatzen duela sintaxian, ergatibodun IS biltzen ez duena (15a); ergatiboa ASren barruan duen proposamenean, ordea, predikatu hauen izaera azaltzea zail egiten da (15b):




Sarasolak (1977), bada, absolutiboak eta aditzak erakusten duten hurbiltasunean oinarriturik, euskaraz funtzio gramatikalak hizkuntza nominatiboetan bezalaxe eratzen direla ondorioztatzen du. Bere proposamenean, perpaus osagai erregelek ISak kokatzean, eredu bera jarraitzen dute euskaraz eta gaztelaniaz edo ingelesez. Hots, perpaus egitura erregelek, semantikoki kide diren ISak leku berean jartzen dituzte, (16)ko zuhaitzetan ikusten dugun bezala:

¹¹ Predikatu hauen garrantziaren erakusgarri, euskal kasu sistemari buruzko hainbat lanek ematen dioten garrantzia dugu: Levinek (1983) argitara ekarri zuen predikatu hauek ezergatibotasunarekin duten zerkusia, eta ondoko hainbat lanek ikergai erabili izan dituzte. Hauen artean, adibidez, Uribe-Etxebarria 1989, Fernandez 1996, Laka 1993, Rodriguez eta García Murga 2001, beste askoren artean.

(16) a. Hizkuntza nominatiboa:
gaztelania, ingelesa




b. Hizkuntza ergatiboa:
euskara



Abiapuntu honetatik, Sarasolaren proposamenak kasu eta komuntzaduraren berri eman behar du; zergatik jasotzen dute IS batzuek ergatibo marka eta beste batzuek ez? Zeren arabera banatzen da aditz jokoaren komuntzadura marka, kokagune sintaktikoaren arabera ez bada? Kasu morfologia, erregela transformatzaile baten ondorio litzateke:

Dicho en otras palabras, la ergatividad se resolvería en una gramática transformacional (según el modelo de Chomsky 1965) por una transformación, la transformación ergativa, que se aplicaría obligatoriamente a toda frase cuyo análisis estructural supusiera el siguiente árbol:



El cambio estructural de la transformación consistiría esencialmente en la adición del morfema de ergativo, -K, al SN directamente dominado por O (Sarasola 1977: 39).¹²

Nahiz eta erregela transformatzailearen formalizaziorik eskaintzen ez den, ikus dezakegu transformazio honek ergatibo marka eransten diola, P adabegiaren alaba den ISri, baldin eta bere ahizpa den ASk, beste IS bat biltzen badu barruan.

Aukera transformatzaile honek ere, baina, arazo enpirikoekin egiten du topo. Ikusiko dugunez, proposamenak konpontzen ez dituen arazo hauetan, sakoneko aukeran bezala, eredu teorikoak berak zeuzkan hutsuneak aurkituko ditugu.

Ergatiboaren erregela transformatzaile honek, perpaus iragankorretako Pren alaba den ISren kasu markatzea azaltzen du, baina ez du erantzunik ematen aditz jokoak erakusten duen komuntzadurari dagokionean, hor ere eredu ergatiboa aurkitzen baitugu.¹³ Teoria Estandarrak ez zeukan aditz komuntzadura bikoitza duten gramatiketarako eredu egokirik, eta hizkuntza ergatiboen kasuan soilik bereitzen dira subjektu motak:

¹² Aipu honetan, NP (Noun Phrase) eta SN (Sintagma Nominal) sinboloek IS adierazten dute, eta S (sentence) eta O (oración) sinboloek, P(erpaua).

¹³ Euskal komuntzadura ikertzen duten egungo lanen artean ikus Albizu 1997, Ormazabal 1999.

iragankorrek eta iragangaitzak.¹⁴ Azken batean, eredu nominatiboek behar ez duten transformazio bat gehitu behar da hizkuntza ergatiboetarako. Sarasolak berak onartzen du hau: «...es indudable que el colocar el NP en caso absoluto inmediatamente dominado por S ahorra una regla transformativa de la gramática, regla que tendría que asignar obligatoriamente el formante de ergativo a dicho NP...» (Sarasola 1977: 24). Gramatikaren soiltasunari loturiko arazo honi, arazo enpirikoak gehitzen zaizkio. Adibidez, IS bi eduki arren ergatiborik ezartzen ez duten aditzena (17a), edota ergatiboa ezartzen duten IS gabeko ASak dituzten perpausena (17b):

(17) a. emakumeei gizona gustatzen zaie b. urak irakin du

Ohar bedi, baina, (17)ko adibideak arazoa direla baita de Rijk eta Wilburren proposamenetarako ere. Lehenengo kontraadibideak, datiboen gai korapilatsua ikutzen du, garai hauetan jorratu gabe zegoena.¹⁵ Bigarrenari dagokionez (17b), Sarasolak azpimarratzen du osagai egitura erregeletan oinarritutako proposamenek aurkitzen dituzten oztopoak:

Hechos de este tipo exigirían a Wilbur admitir diagramas arbóreos sin NP directamente dominado por S. Suponer una regla transformativa de deletion que suprima a nivel de estructura superficial dicho NP sería, como hemos indicado, ir contra los hechos vascos, ya que sería suprimir algo que bajo ninguna suposición razonable puede pensarse que exista a un nivel más profundo» (Sarasola 1977: 32).

Kritika hau zuzena bada ere, ohar bedi ergatiboaren ezarketarako erregela transformatzailea ezingo litzatekeela ezarri, ez baitago ISrik ASren menpe. Beraz, predikatu hauek kontraadibide irauten dute bai proposamen batean zein bestean. Aurkitzen dituzten arazo enpirikoak alde batera utzirik, ergatibotasuna azaltzeko lehen saio hauek zuzenean ukitzen dituzte Teoria Estandarrak zeuzkan arazoak harreman semantikoak eta harreman sintaktikoak elkarlotzeko. Chomsky (1965) behin baino gehiagotan aldarrikatzen du, baina, ereduaren behin behingotasuna alor honi dagokionez:

To conclude this highly inconclusive discussion, I shall simply point out that the syntactic and semantic structure of natural languages evidently offers many mysteries, both of fact and of principle, and that any attempt to delimit the boundaries of these domains must certainly be quite tentative (Chomsky 1965: 163).

Ez da harritzekoa Teoria Estandarrak hizkuntza ergatiboak itxuratzeko arazoak izatea, hasiera batetik, litezkeen sistema gramatikalak bakarrik azaltzeko eredu mugatutzat eraikitzen baita. Ereduaren hasierako itxurapena hizkuntza nominatiboetan oinarrituz eraikitzean, hizkuntza hauetakoak diren ezaugarri bereziak, unibertsalak balira bezala

¹⁴ Wilbur 1970 arazo honetaz jabetzen da, ondoko ausnarketan: "...it introduces all sorts of transitive/intransitive choices at the beginning of the grammar. This is an unnecessary and unnatural complication. For instance, the NP without a postposition must in the transitive sentence play the role of «direct object» while in the intransitive sentence, it must play the role of «subject»".

¹⁵ Datiboak euskararen sintaxian duen jokabideari buruz, dena den, asko ikasi dugu azken urteotan, hainbat ikertzailearen eginahalei eskerrak. Horien artean, adibidez, Fernandez 1996, Albizu 2001 eta Elordieta 2001 lanetan egiten diren azterketa sakonak aipa genitzake, beste batzuen artean.

biltzen ditu. Eredua hizkuntza talde zabalago bati ezartzen zaion neurrian, ereduak ere aldaketa nabarmenak ezagutuko ditu gerora, batik bat laurogeiko hamarkadan.

Bibliografia

- Albizu, P., 1997, «Generalized Person-Case Constraint: A Case for Syntax-Driven Inflectional Morphology». In Mendikoetxea, A. eta Uribe-Etxebarria M. (arg.), *Theoretical issues on the Morphology-Syntax Interface*. «ASJU Gehigarriak» XL, Donostia, 1-34.
- Anderson, S., 1976, «On the notion of subject in ergative languages». In C. N. Li (arg.), *Subject and Topic*, Academic Press, New York, 1-24 or.
- Artiagoitia X., 1998, «Determinatzaile sintagmaren hipotesia euskal gramatikan», *Uztaro* 27, 33-61.
- , 2000, *Hatsarre eta Parametroak lantzen*, EHUko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.
- Botha, R. P., 1989, *Challenging Chomsky. The Generative Garden Game*, Basil Blackwell, Oxford.
- Chomsky, N., 1957, *Syntactic Structures*, Mouton, The Hague. [Gaztelaniazko itzulpena, *Estructuras Sintácticas*, Siglo XXI, México, 1974].
- , 1965, *Aspects of the Theory of Syntax*. MIT Press, Cambridge, Massachusetts. [Gaztelaniazko itzulpena: *Aspectos de la teoría de la sintaxis*, Aguilar, Madrid, 1971].
- , 1981, *Lectures on Government and Binding*, Foris, Dordrecht, Holland.
- Dixon, R. M. W., 1994, *Ergativity*, Cambridge Studies in Linguistics 69, Cambridge U. P., Cambridge.
- Elordieta, A., 2001, *Constituent permutation and verb movement in Basque*. Leiden University.
- Fernandez, B., 1996, *Egiturazko kasuaren erkaketa euskaraz*, EHU Doktorego Tesia, UPV-EHUko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.
- Goenaga, P., 1978, *Gramatika bideetan*. Leopoldo Zugaza, Durango. [2. argitalpena: Erein, Donostia, 1980]
- Hale, K., 1970, «The passive and ergative in language change: The Australian case», in S. A. Wurm eta D. C., Laycock (arg.), *Pacific Studies in Honour of Arthur Campbell*, A. H. and A. W. Reed, Sidney, 757-781.
- , 1973, «Person marking in Walbiri», in S. R. Anderson eta P. Kiparsky (arg.) *A festschrift for Morris Halle*, Holt, Rinehart and Winston, New York, 308-344.
- Johns, A., 1996, «Ergativity: working through some recent analyses», *GLOT International* 2: 6,3 (August).
- Laka, I., 1993, «Unergatives that assign ergative, unaccusatives that assign accusative», *Papers on Case and Agreement, MIT Working Papers in Linguistics*, Cambridge, Massachusetts.
- Levin B., 1983, *On the Nature of Ergativity*, MIT Doktorego Tesia, MIT, Cambridge, MA.
- Marantz, A., 1984, *On the Nature of Grammatical Relations*, MIT Press, Cambridge, MA.
- de Rijk, R., 1966, «Redefining the Ergative», eskuizkribua, MIT.
- Ormazabal, J., 1999, «A Conspiracy Theory of Case and Agreement», in Martin, R. et al. (arg.), *Step by Step: Papers in Honour of Howard Lasnik*, MIT Press, Cambridge, Massachusetts.
- Rodriguez, S. eta García-Murga, F., 2001, «Noun + *egin* predicates in Basque», *Cuadernos de Lingüística* 8, Instituto Universitario Ortega y Gasset, Madrid, 37-52.
- Sarasola, I., 1977, «Sobre la bipartición inicial en el análisis de constituyentes», *ASJU* 11, 51-90.
- Uribe-Etxebarria, M., 1989, «On noun incorporation in Basque and some of its consequences in the phrase structure», eskuizk., UConn.
- Wilbur, T. H., 1970, «Ergative and pseudo-ergative in Basque», *FLV* 4, 57-66.